



AGURAINGO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, 2025-2027 ALDIRAKO

AURKIBIDEA

I. OHAR OROKORRAK

- A) ATARIKOA
- B) ARAU TESTUINGURUA

II. PLANAREN IZAERA JURIDIKOA ETA XEDEA

III. PLANAREN EDUKIA

IV. ONESTEKO ESKUMENAK

V. EREMU SUBJEKTIBOA

VI. DENBORA TARTEA, INDARRALDIA ETA EGUNERAKETA

VII. PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK

- A) EGITEKOA
- B) HELBURU ESTRATEGIKO EDO OROKORRAK
- C) PRINTZIPIO OROKORRAK

VIII. JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK

IX. ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK

- A) ONURADUNAK
- B) EMATEKO PROZEDURAK

X. ONDORIOAK, GAUZATZEKO EPEAK, AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA

- A) ONDORIOAK
- B) GAUZATZEKO EPEAK
- C) AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK
- D) FINANTZAKETA

XI. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA

- A) KONTROLA ETA JARRAIPENA
- B) GARDENTASUNA

DIRULAGUNTZEN 2025-2027 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERANSKINA



AGURAINGO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, 2025-2027 ALDIRAKO

I. OHAR OROKORRAK

A) ATARIKOA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, zioen azalpenetan jasotakoaren arabera, sektore publikoaren finantza jardueraren zati garrantzitsua dirulaguntzen bitartez bideratzen da, betiere pertsona eta erakunde publiko eta pribatuen gizarte eta ekonomia eskaerei erantzun egokia emateko, finantza laguntzako neurriak baliatuz.

Ikuspegi ekonomikotik, dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira eta, beraz, aurrekontu politikaren jarraibideei lotu behar zaizkie; izan ere, aurrekontu politika gidatzen duten irizpideak honako hauek dira: aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta hazkunde ekonomikoa.

Ikuspegi horretatik, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak aurrerapauso bat gehiago ematen du gure sistema ekonomikoa arrazionalizatzeko prozesuan, helburu horri begira abiarazitako neurri eta erreformen multzoan txertatuz.

Lege hau gidatzen duten printzipioetariko bat, aurrekontu egonkortasunaren arautegian ere jasotakoa, gardentasuna da. Xede horri begira, administrazioek jendaurrean ezarri beharko dituzte ematen dituzten dirulaguntzak eta, aldi berean, legeak eremu nazionaleko datu basea eratzeko betebeharra ezartzen du, emandako dirulaguntza guztiei buruzko informazio nabarmena jasoz.

Gardentasun handiagoak eragin zuzena du dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan, efizientzia eta eraginkortasuna hobetzen dira eta.

Efikazia hobetzeko ildo horretan, 38/2003 Legeak ezartzen du, hobekuntza horren kudeaketa osagai eta lanabes gisa, administrazio publiko bakoitzak dirulaguntzen plan estrategikoa (DPE) prestatzeko betebeharra duela, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak aurreikusitako kostuekin eta finantzaketarekin erlazionatzea ahalbidetuz, betiere dirulaguntzen bidez estaliko diren premia publikoak baliabide eskuragarrien arabera egokitzeko eta hori guztia dirulaguntzak eman aurretik.

Gainera, legeak jarraipen sistema bat ezartzen du helburuen kontrol eta ebaluazioaren bidez, lortu nahi diren helburuak eskuratzeko mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabideen mailaren arabera egokiak ez diren dirulaguntzen ildo horiek efikaz eta efizienteagoak diren beste batzuen ordeztzeko edo ordeztzeko edo, hala badagokio, ezabatzeko.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak sustapen teknika bat dira, interes orokorreko zat jotzen diren zenbait portaera bultzatzeko edo interes publikoko jardueren kudeaketari begira administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozesua bideratzeko.

Askotariko dirulaguntzak daude, prozedura konplexuen bidez ematen direnak eta, hortaz, jarraipen eta kontrol efikaza izan behar dutenak,



Gauzak horrela, plan estrategikoa eratzen da dirulaguntzak emateko beharrezko osagarri gisa, betiere gardentasunari eta aurrekontu orekari buruzko printzipioak errespetatuz.

B) ARAU TESTUINGURUA

Dirulaguntzen plan estrategikoa egiteko justifikazioak oinarri hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren zioen azalpena (aurrerantzean DLO) eta, zehatzago, aipatutako arau horren 8. artikulua ezarritako agindua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegi Orokorra (aurrerantzean DLAO) onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikulua eta hurrengoak; Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta Dirulaguntzei buruzko 2013ko urtarrilaren 23ko udal ordenantza.

38/2003 Legeak administrazio publikoen jarduketan efikazia hobetzeko kudeaketa elementu eta lanabes gisa jasotzen du administrazio bakoitzak dirulaguntzen plan estrategikoa prestatzeko betebeharra duela. Plan horrek lortu nahi diren helburuak eta ondorioak aurreikusitako kostuekin eta finantzaketarekin erlazionatzea ahalbidetu behar du, dirulaguntzen bidez estaliko diren premia publikoak baliabide eskuragarrien arabera egokitzeko. Hori guztia dirulaguntzak eman aurretik egin behar da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan honako hau dio: "Administrazio organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldeztu aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantziario iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".

DLOren 8. artikulua hori garatu dute uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako DLOren arautegiaren 10. eta 15. artikuluek. Gauzak horrela, horiek ezartzen dute zeintzuk izango diren DPEen printzipio gidariak, eremua eta edukia eta zeina den plana onesteko eta haren jarraipena egiteko eskumena.

DLOren arautegi orokorraren 11. artikulua ezarritakoari jarraikiz, plan estrategikoa ezinbestean egokitu beharko zaizkie ekitaldi bakoitzari begira politika ekonomikoko eta aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzeko ezarritako murrizketei. Hiru urteko indarraldia duen eperako aurreikuspenak jasoko ditu, baldin eta eragindako sektorearen izaera berezia dela-eta komenigarria ez bada iraupen desberdineko plan estrategikoa bat ezartzea.

Nolanahi ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 4. artikuluan toki erakundeei emandako arauko ahalmena dela bide, arauko esparru orokorra honako arau edo lanabes propioak erabiliz osatzen da:

- Aguraingo Udalaren dirulaguntzei buruzko udal ordenantza, udalbatzak 2013ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran onetsitakoa eta 2013ko otsailaren 15eko 20. ALHAOn argitaratutakoa.
- Ekitaldi bakoitzari begira aurrekontuen tramitazioarekin batera aurrekontua betearazteko onesten diren udal arauak.



Nabarmendu beharra dago, DPEen garrantziari dagokionez, Auzitegi Gorenak ezarritako jurisprudenzia berriak (zehatzago, 2013ko apirilaren 16ko epaia eta 2012ko ekainaren 26koa eta abenduaren 4koa) arrazoitzen duela DLOren 8.1. artikulua aipatutako dirulaguntzen plan estrategikoak "edozein dirulaguntza ezarri aurretikoak direla eta funtsezko betekizuna direla, eta, hori betetzeko kanpotik gauzatu eta plan estrategiko gisa identifikatzeko edukia jaso behar du, 8. artikulua 1. apartatua aipatutakoa islatu behar baitu; halaber, agerian dagoenez, ez da plan horren baliokidea izango udal aurrekontuan dirulaguntzak ordaintzeko partida bat jasotze hutsa".

Aurrekoarekin bat etorritik, DPE prestatu beharko da dirulaguntzak emateko edozein proposamen egin aurretik eta, halaber, udal dirulaguntzen plan estrategikoan jaso beharko dira planteatzen diren proposamenak.

Plan estrategiko hau prestatzeko zereginetan Aguraingo Udalaren arloetako teknikariek hartu dute parte, bai eta dirulaguntzak kudeatzeko erantzukizuna dutenek ere, eta alde aurretik 2022-2024 plan estrategikoari buruzko jarraipen txostena egin dute.

II. PLANAREN IZAERA JURIDIKOA ETA XEDEA

DPE tresna bat da, zeinean bat egiten baitute, alde batetik, dirulaguntzak ematea arautuko duten printzipio orokor eta inspiratzaileen gauzapenak eta haien justifikazioak eta, bestetik, bidean dauden dirulaguntzen kontrol neurrien ezarpenak zeinek, dirulaguntzak eman ondoren, ikusten diren desbideratzeak zuzenduz, etorkizunean emango direnak hobetzea ahalbidetuko baitute.

Eta adierazitakotik eta DPEren erregulaziotik ondorioztatzen da haren xedea dela efikaziarik handiena lortzea eskuragarri dauden baliabideak erabiliz, horretarako aurrekontu egonkortasunaren printzipioari darizkion mugak errespetatuz.

Gainera, DPEk izaera programatikoa bai baina arauzko lerrunik ez duen kudeaketa tresna denez gero, ez du zuzeneko eraginik dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen eremuan, eta, beraz, ez du ez eskubiderik, ez betebeharririk sorrarazten. Eraginkorrak izango dira, baldin eta dirulaguntzen lerroak abian jartzen badira, eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzean dauden aurrekontu baliabideak kontuan hartuta.

Hori dela eta, plan honek ezarritako dirulaguntzak ezartzeko, udal aurrekontuetan behar diren esleipenak egin eta horiek emateko oinarri arautzaileak onetsi beharko dira edo dagokion agiria.

Haren barne eraginek, ordea, lotura dakarkio udalbatzari, bi zentzutan. Batetik, planean ezarrita ez dauden ekintza ildoetarako dirulaguntzen emakida debekatuz. Bestetik, ezarpenen aldean izan daitezkeen desbideraketak arrazoitzeko betebeharririk zehatza ezarritik, betiere Dirulaguntzei buruzko Legearen Arautegiaren 15. artikulua ezarritakoaren arabera jarraipen txostenetatik sor daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe.

Gainera, gastuaren kontrola beharrezkoagoa den momentu hauetan, DPE sustapen ekintza arrazionalizatzeko baliagarria izango den tresna bilakatu behar da; gauzak horrela, ekintza horri eutsi ahalko dio eta, era berean, gaur egungo zirkunstantziak direla-eta mugaturik egon daitezkeen baliabideak errentabilizatu ahalko dira efikazia irizpideen bidez.



Behin DPE kudeaketa publikoko lanabes efikaz gisa egituratu ondoren Aguraingo Udalak bere arloen bidez politika publikoak gauzatzeko eta helburuak lortzeko dituen baliabide ekonomikoak arrazionalki bana daitezzen, planaren erabilgarritasun nagusietariko bat da aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza ildoak sistematizatzea, modu horretan dirulaguntzen gaur egungo politikaren etorkizuneko ebaluazio bati lagunduz, plana ebaluatzeko eta jarraitzeko txostenen bidez.

III.- PLANAREN EDUKIA

Haren edukia aipatutako arautegiaren 12. artikulua ezarritakoari lotu beharko zaio; ezarpen horrek ere planaren ebaluazioa eta jarraipena jasotzen ditu. Zentzu horretan, artikulua horrek honako hau ezartzen du:

1. Plan estrategikoen honako edukia izango dute:

a) Helburu estrategikoen; planaren indarraldian ekintza instituzionalaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak azalduko dituzte eta horiek ezinbestean lotu behar zaizkie aurrekontu programetan ezarritako helburuei. Helburu estrategikoen merkatuari eragiten diotenean, zuzendu nahi diren akatsak ere identifikatu beharko dira, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 8. artikulua 2. apartatuan ezarritako helburuak aintzat hartuz.

b) Jarduketa plana zehazten duten dirulaguntza ildoak. Dirulaguntza ildo bakoitzari begira, honako alderdi hauek azaldu beharko dira:

1. Zein eskumen arlori eragiten dien eta zein sektoreentzako diren dirulaguntzak.
2. Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
3. Gauzatzeko beharrezko epea.
4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantziario iturriak; horietan guztietan zehaztu beharko dira administrazio publikoen, Europar Batasunaren eta sustapen ekintzetan parte hartzen duten organo publiko eta pribatuen ekarpenak, bai eta, osagarritasunaren printzipioa kontuan hartuz, dirulaguntzen onuradunei dagozkien ere.
5. Ekintza plana. Bertan zehaztuko dira planean identifikatutako dirulaguntza ildoak praktikan jartzeko mekanismoak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 9. artikuluan emakidarako aipatutako oinarri arautzaileek izan beharreko oinarritzko ildoak mugatuko dira, egutegia ezarriko da eta, hala badagokio, kudeaketari begira administrazio publikoen arteko koordinaziorako irizpideak jasoko dira.

c) Ezarritako dirulaguntza ildoei aplikatu dakiekeen etengabeko jarraipen eta ebaluazio araubidea. Ondorio horietarako, dirulaguntza ildo bakoitzerako zehaztu beharko da planaren helburuekin erlazioatutako adierazleen multzoa; izan ere, jarraipenaren arduradunek hori aldizka-aldizka jasota, jakin ahalko dute zein den egoera eta zeintzuk lortutako aurrerapenak aldeztatik zehaztutako helburuak betetzerakoan.

d) Aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, egindako txostenen edukia jakinarazteko.



2. Plan estrategikoaren edukia honako honetara mugatu ahalko da: helburuei, kostuei eta finantziario iturriei buruzko azalpen memoria bat egitera, hain zuzen. Hori honako kasu hauetan:

a) Zuzenean emandako dirulaguntzak, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 22.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Ministerio saileko titularrak modu arrazoituan zehaztutako dirulaguntzak, betiere esku hartze publikoko lanabes gisa duten garrantzi ekonomiko edo sozial txikia kontuan hartuz.

3. Dirulaguntzen plan estrategikoek izaera programatikoa dauka eta haren edukiak ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk; haren eraginkortasuna baldintzaturik dago dirulaguntza ildoak abian jartzearen arabera, betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu eskuragarritasunen baldintzatzaileei men eginez.

Aguraingo Udalaren dirulaguntzen 2025-2027 aldirako plan estrategikoa honako eranskin honetan jasotzen da: "Dirulaguntzen 2025-2027 aldirako plan estrategikoaren eranskina". Dirulaguntzen kudeaketa organoen arabera sailkatuta, agiri horretan honako hauek zehazten dira:

- ✓ Helburu estrategikoak.
- ✓ Zein eskumen arlori eragiten dien.
- ✓ Aplikazioaren bidez lortu nahi dena.
- ✓ Denbora tartea.
- ✓ Gauzatzeko beharrezko epea.
- ✓ Aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak.
- ✓ Ekintza plana.
- ✓ Jarraipen eta ebaluazio araubidea.
- ✓ Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea.
- ✓ Onuradunak/Hartzaileak.
- ✓ Berdintasuna benetan lortzeko jarduketan aurreikuspena.
- ✓ Kredituaren esleipena jasotzen duen aurrekontu aplikazioa.

IV. ONESTEKO ESKUMENAK

Dirulaguntzak emateko organo eskuduna alkate-udalburua izango da, baldin eta aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 10a gainditzen ez bada eta eskumena beste organo bati eskualdatu ez bazaio.

Udalbatzak eman beharko du, baldin eta haren zenbatekoak aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 10 gainditzen badu eta eskumena beste organo bati eskualdatu ez bazaio.

Dirulaguntzen plan estrategikoa onesteko organo eskuduna Aguraingo Udalaren udalbatza da, dirulaguntzen edo sustapenaren jardueraren planifikazio estrategikoaren eta kudeaketa ekonomikoaren tresna den aldetik, bat etorritik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen



Legeak 22.2. artikularen e) letran ezarritakoarekin. Eskumen hori, gainera, ezin da eskuordetu.

Udalbatzak onetsi aurretik, dirulaguntzen plan estrategikoa behar den informazio batzordearen irizpenaren pean jarri behar da; halaber, udalaren web orrian nahiz ALHAOn argitaratu beharko da.

V. EREMU SUBJEKTIBOA

Aguraingo Udalaren dirulaguntzen plan estrategiko udalak bere arloen bidez emandako dirulaguntza guzti-guztiak jasotzen ditu.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 2.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ez dira plan honen eremuan sartzen, ez baitira dirulaguntzat hartzen, Aguraingo Udalak beste administrazio publiko batzuei administrazio horien jarduera oro har finantzatzeko egiten dizkien diru ekarpenak. Aguraingo udalak, honako erakundeak hauei egiten dizkie era horretako ekarpenak: Arabako Lautadako Kuadrilla, Entzia eta Iturrietako partzuergoak, Urbide Partzuergoa, Arabako Foru Aldundia, udal sozietatea, Lautada Garapen Elkartea eta udalak.

VI.- DENBORA TARTEA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA

Plan honek hiru urteko indarraldia izango du; beraz, 2025-2027 aldirakoa izango da, eta hori ez da oztopo izango dirulaguntza ildo batzuek indarraldi laburragoa izan dezaten.

Aurrekoa gorabehera, urtero-urtero dirulaguntza ildo batzuk aldatu, ordeztu edo kendu ahalko dira jarraipen txostenak ikusirik eta eskuragarri dagoen aurrekontua kontuan harturik.

Ildo bakoitzaren barnean edukiaren edozein alderdi eguneratu edo aldatu ahalko da, bai helburuen lorpenari buruz edo inbertitutako baliabideen egokitzapenari buruz egindako jarraipen txostenen emaitzengatik, bai behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik.

Jakina denez, aurrekontu aldarazpenik egin nahi izanez gero DPE honetan ezarrita ez dauden dirulaguntza ildoak jasotzeko, aldeztu aurretik edo aldi berean plan estrategikoa bera aldatu beharko litzateke. Jasotako dirulaguntza ildoak aldatzeari dagokionez, ez litzateke beharrezkoa izango DPE aldaraztea, baldin eta xedea bada ildoaren dirulaguntzari emandako zenbatekoa aldatzea eta ildoaren gainerako osagaiek aldaketarik gabe jarraitzen badute; hori guztia behar bezala egiaztatu beharko du espedientean kudeaketa zentroak.

VII. PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK

A) EGITEKOA

Udalaren dirulaguntza jarduera osoaren xedea honako hau da:

"Gure udalerriaren gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatzea, sustatzea eta sendotzea interes erkideko udal kudeaketako eremu desberdinetan eta gizabanakoen gizarte inklusioa



sustatzea gizarte ahultasun egoeran dauden herritarrentzako laguntza ekonomikoen bitartez, betiere aukera berdintasunaren printzipioa babesteko".

B) HELBURU ESTRATEGIKO EDO OROKORRAK

Plan honen ondorioetarako, dirulaguntzat hartzen dira udalak pertsona publiko edo pribatuen alde edo nortasun juridikorik gabeko erakundeen alde egindako diru esleipen guztiak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- b) Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeko, proiektu bat gauzatzeko, jardura bat egiteko, portaera berezi bat izateko, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeko; onuradunak ezarritako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.
- c) Finantzaturiko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jardura bat edo xede publiko bat sustatzea.

Lehentasunezko helburuei dagokienez, honako hauek jasotzen dira: onura publikoko edo gizarte intereseko jardura guztien sustapena edo helburu publiko baten bultzada, betiere irabazteko xederik gabeko eta etekin ekonomiko urriko jarduerak garatzeko eta sustatzeko laguntza emanez eta elkarte sareak nahiz herritarrek udal jardunean parte hartzeko partaidetza sareak sortzea bultzatuz.

2025-2027 aldiari begira, Aguraingo Udalaren plan estrategiko honen eta laguntza eta dirulaguntza ildoen helburu orokorrak honako hauek dira:

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan jasotako legeko agindua betetzea; izan ere, ezarpen horrek udalak behartzen ditu plan estrategikoa onestera dirulaguntzak emateari ekin baino lehenago.

Udal arloen askotariko laguntza eta dirulaguntza ildo eta programei begira, gauzatzeko printzipio eta oinarri erkideen multzoa ezartzea.

Dirulaguntzen udal kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea, zeharkakotasunaren, efikaziaren eta efizientziaren alderdiak baloratuz laguntza ildoak kudeatzeko orduan.

Udalak izapidetu beharreko dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko araubidea erregulatzea.

C) PRINTZIPIO OROKORRAK

Dirulaguntzen eta administrazio publikoen arloko erregulazio juridikoak zenbait jarduketa printzipio orokor ezartzen ditu; horiek guztiak plan estrategikoaren funtsezko elementuak dira eta dirulaguntzen arloko udal kudeaketa gidatu behar dute. Honako hauek dira:

Publizitatearen printzipioa: Printzipio hau gauzatzen da deialdiaren publizitatea bermatzen duen alde aurreko deialdian eta emandako dirulaguntzen publizitatean; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean, udalaren aurrekontuaren betearazpen oinarrietan eta gainerako arautegi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz.



Lehia askearen printzipioa: Printzipio hori gauzatzen da onuradunek bete beharreko baldintzen zehaztapenean, betiere baldintza berdintasunean daudenentzako sarbideragarritasun edo eskuragarritasuna murriztu gabe, funts publikoak banatzean lehia eta berdintasuna bermatuz; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, nahiz eta horretarako alde aurretik beharrezko aurrekontua esleitu beharko den arategi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

Objetibotasunaren printzipioa: Dirulaguntzak emango dira alde aurretik deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera, betiere onuradun potentzialek alde aurretik ezagutuko dituztela bermatu ahal izateko.

Baliabide publikoak ematean gardentasunaren eta berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioak: Printzipio hori gauzatuko da lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioak betez; hori, hala ere, ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean emateko legezko kasuak aplika daitezen.

Eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioak: Emandako dirulaguntzen jarraipen eta kontrol prozedura bat ezartzean zehaztutako helburuak betetzeko efikazia eta baliabide publikoak esleitzeko efizientzia, betiere dirulaguntzak baloratuz eta proiekturik efizienteenei esleitzuz; dena dela, jasotako dirulaguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira betiere.

Aurrekontu egonkortasunari eta gastu aruari egokitzeko printzipioa: Dirulaguntzak emateko, aurrekontu egonkortasunaren eta finantzaketa iraunkortasunaren printzipioa eta gastu arua bete beharko dira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

Erakunde eskatzaileen helburuak diruz lagundutako jarduerak burutzeko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioetara moldatzen direnez kontrolatzeko eta aztertze printzipioa.

VIII. JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK

Plan estrategiko honetan jasotako jarduketa ildo estrategikoak jarraian zehazten dira, udal gobernuaren arloen arabera laburbilduta.

Hala ere, bakoitzaren xehetasuna "2025-2027 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskinean dago.

OGASUN, ONDARE, LANGILE ETA ZERBITZU ARLOA

- ✓ Garapenerako lankidetzak
- ✓ Erakunde autonomo eta udal sozietateentzako transferentziak
- ✓ Euskal udalerrien elkarreentzako ekarpen instituzionalak

HIRIGINTZA, UR, INGURUMEN ETA HERRITARREN BABES ARLOA

- ✓ Ingurumenari buruzko zabalkunde eta kontserbazio jarduerak

ENPLEGU, PRESTAKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO ARLOA



- ✓ Kultura jardueren sustapen eta zabalkundea merkataritzaren bidez
- ✓ Toki merkataritzaren sustapena eta zabalkundea

EUSKARA, HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL ARLOA

- ✓ Euskararen sustapena
- ✓ Hezkuntza jardueren sustapen eta zabalkundea
- ✓ Kirol jardueren sustapen eta zabalkundea
- ✓ Kultura jardueren sustapen eta zabalkundea

GIZARTE ONGIZATE ETA BERDINTASUN ARLOA

- ✓ Gazteen parte hartzearen sustapena
- ✓ Elkarbizitzaren sustapena udalerrian
- ✓ Prestazio ekonomikoak pertsona eta familiei laguntzeko
- ✓ Adinekoen parte hartzearen sustapena

IX.- ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK

A) ONURADUNAK

Dirulaguntzaren onuraduna izango da dirulaguntzak oinarri duen jarduera egingo duen edo ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

B) EMATEKO PROZEDURAK

Aguraingo Udalak dirulaguntzak emango ditu dirulaguntzen arloan indarrean dagoen arautegiaren arabera eta lehia askeko araubidean egin beharreko deialdi publikoaren bidez edo, salbuespen gisa, zuzeneko emakidaren bidez, betiere pertsona fisiko edo juridikoen alde, publiko edo pribatuen alde, ondasun erkidegoen alde edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare unitateen alde, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, dirulaguntza arrazoitzen duen egoeran dauden proiektuak, jarduerak edo jokabideak aurrera eraman ahal badituzte.

Jarduera bat dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea izan dadin udalaren aurrekontu orokorren kontura, honako helburu hauetariko bat bete beharko du:

- Udal eskumeneko helburuak osatzea, laguntzea, ematea, erraztea edo ordeztzea.
- Gizarte intereseko jarduera bat sustatzea.
- Interes orokorren edo auzokideen interes sektorialen defentsa helburu duten elkarteak bultzatzea.
- Gizarteratzen sorostea laguntza ekonomikoen bidez gizarte ahultasuneko egoeran dauden herritarrei, aukera berdintasunaren printzipioa babesteko.

Eman ahal izateko, honako prozedura hauek ezartzen dira dirulaguntzen emakidari begira:

- Norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzak.
- Aurrekontuan jasotako dirulaguntza izendunak.



- Zuzenean emandako dirulaguntzak interes publikoko arrazoiengatik edo gizarte, ekonomia edo giza arrazoiengatik edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten eta behar bezala justifikaturik dauden bestelako arrazoiengatik.
- Aguraingo Udalari lege mailako arau batek dirulaguntzak emateko ezarritako emakida edo zenbatekoa. Kasu horietan aplikagarri zaien emakida prozedurari jarraituko zaio haien arautegi propioarekin bat etorritz.

Orokorrean, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira; horretaz gain, laguntza zuzena eman ahal izango da udal aurrekontuetan izendun gisa agertzen diren dirulaguntzen kasuan, eta dirulaguntzaren ezaugarrien, premiaren edo interes publikoaren arabera bestelako emakida prozedura bat eskatzen denean, indarreko legeriaren arabera, eta dagokion justifikazioa eginda. Dirulaguntzei dagokien oinarrietan jaso beharko da arautzen den dirulaguntza ildo bakoitzari dagokion prozedura.

X. ONDORIOAK, GAUZATZEKO EPEAK, AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA

A) ONDORIOAK

Plan estrategikoak zenbait jarduera garatu edo bideratu nahi ditu, udalerriko gizarte sektoreei era guztietako premia sozialak, profesionalak edota aisialdikoak asebetetzeko proiektuak garatzeko aukera eskaintzea ahalbidetzeko. Hori dela eta, dirulaguntzaren jardueraren xedea da:

- Interes orokorreko jarduerak egingo direla sustatzea eta toki erakunde honen eta partikularren arteko lankidetzak bultzatzea, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.
- Gure udalerraren gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatzea, sustatzea eta sendotzea interes erkideko udal kudeaketako eremu desberdinetan eta gizabanakoen gizarte inklusioa sustatzea gizarte ahultasun egoeran dauden herritarrentzako laguntza ekonomikoen bitartez, betiere aukera berdintasunaren printzipioa babesteko.

Dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

Halaber, interes orokorreko jarduerak sustatzera bideratutako ekintzak hartu beharko dira aintzat; horretarako, urtero-urtero funtsak bideratu ahalko dira dirulaguntza mota horietarako, behin udal aurrekontuan esleitu eta gero.

B) GAUZATZEKO EPEAK

Oro har, urtebeteko epea izango da udalaren dirulaguntzez lagundutako jarduerak gauzatzeko, eta justifikaziorako, urte naturala.

Gerta daiteke kasu batzuetan zirkunstantziak komenigarri egitea urtetik gorako burutzapen epea ezarri beharra edo epea aldarazi beharra; halakoetan, hori guztia dirulaguntzen oinarrietan jaso beharko da eta kasu horretan urtero-urtero bete beharko dira indarreko legeriak ezartzen dituen baldintzak.



C) AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK

Plan estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal aurrekontuan behar diren kredituak jasoko dira eta, hala badagokio, lehia askeko dirulaguntzen deialdia arautuko duten oinarriak onetsiko dira edo, kasu zehatzean, emakidaren oinarri arautzaileak jasoko dituzten ordenantzak onetsiko dira, edo zuzeneko emakida onartzen duen erabakia hartuko da.

Dirulaguntzak eman ahal izateko, aurrekontu egonkortasunaren, finantza iraunkortasunaren eta gastu arauaren printzipioak bete beharko dira.

Kasu bakoitzeko kostuak ezingo dira izan Aguraingo Udalak aurrekontu orokorrean urtero-urtero finkatutako zenbatekoa baino handiagoak.

Ezin izango da zehaztutako zenbatekotik gorako dirulaguntzarik eman. Edonola ere, kredituek izaera mugatzaile eta loteslea dute; beraz, ezin izango da horien zenbatetik gorako gastu konpromisorik hartu.

D) FINANTZAKETA

Plan estrategiko honek zehazten dituen dirulaguntzak udal aurrekontuaren kredituen kontura finantzatzen dira. Aurrekontua 2025erako eta hurrengo ekitaldietarako esleitu da bertan zehaztutako aurrekontu aplikazioetan; horiek guztiak eguneraturik agertzen dira udal web orrian.

XI. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA

A) KONTROLA ETA JARRAIPENA

Aguraingo Udalaren dirulaguntzen plan estrategiko honen kontrol eta jarraipena urtero egingo da, bi alderdi jorratuz:

Emandako dirulaguntzen kontrol ekonomiko eta finantzarioa Aguraingo Udalaren Kontu Hartzaitzak egingo du, indarreko legeriak ezarri bezala, betiere Kontu Hartzaitza Orokorrek zehaztutako prozedurak betez.

Planaren kontrola eta jarraipena. Plan estrategiko hau berrikusi behar da, honako hauek egiteko:

- ❖ Indarraldia galdu duten edo helburuak betetzeko efikazak ez diren dirulaguntza ildoak aldatzeko edo eguneratzeko.
- ❖ Mantendu direnen zenbatekoak eguneratzeko.
- ❖ Aldez aurretik ezarritako helburuak bete nahian beharrezkotzat jotzen diren jarduketara ildo berriak txertatzeko.

Jarraipen hori urtero egin beharko dute arlo bakoitzeko teknikariek eta hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan justifikazio memoria bat bidali beharko dute honako zehaztapen hauek jasoz:



- Dirulaguntza ildo eta mota bakoitzari buruzko informazioa, emandako dirulaguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzulitakoak (edo itzulketa prozeduran daudenak) jasoz.
- Helburu zehatzen betetze maila, lorpen epearen betetze maila. Ondorio horietarako, dirulaguntza ildo bakoitzari begira zehaztu beharko da zeintzuk izan diren helburuen betetze mailaren adierazleak.
- Benetako kostuak aurreikusitakoaren aldean, ekintza plana eta adierazle kuantifikagarriak. Eragin nahi izan den errealitatearen gaineko inpaktua eta ondorioak.
- Planaren aplikazioaren ondorioz sortutako aurrekontu eta finantza eraginak.
- Ondorioak edo balorazio orokorra.
- Dirulaguntzen hurrengo plan estrategikoa prestatzeko iradokizunak.

B) GARDENTASUNA

Gardentasun printzipioa betetze aldera, udalak emandako dirulaguntza guztiak (bakoitzaren ildo estrategikoak, laguntza programak eta deialdiak barne) udal webgunean argitaratuko dira urtero, bai eta Dirulaguntzen Base Nazionalen ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak 20. artikuluan ezarritakoaren arabera; gauzak horrela, erakunde jasotzailea aipatuko da, bai eta dirulaguntzaren zenbatekoak eta zein proiektu edo ekintzarako den ere. Ondorio horietarako, arlo bakoitzeko teknikariak arduratuko dira publizitate hori izapidetzeaz.

ARLOA: OGASUN, ONDARE, LANGILE ETA ZERBITZU ARLOA

DIRULAGUNTZA LERROA: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALDEKO EKIMEN ETA PROIEKTUEI LAGUNTZEA

1. Helburu estrategikoak	Garapenerako lankidetzaren aldeko ekimen eta proiektuei laguntzea.
2. Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Gizarte arloa, garapen eta sustapen ekonomikoa, garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza
3. Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garapenaren aldeko lankidetzarako eta hezkuntzarako urte anitzeko proiektuak identifikatzen laguntzea. ▪ Garapenaren eta giza ekintzaren aldeko lankidetzarako urteko proiektuak aurrera eramaten laguntzea ▪ Garapen bidean dauden herrialdeetan premiazko esku hartzei laguntza ematea. ▪ Garapenaren aldeko lankidetzarekin zerikusia duten eta hartzaile desberdinei zuzentzen zaizkien sentsibilizazio jardueri (ikasleak, gazteak, etab.) laguntza ematea. ▪ Lesbos uharterako errefuxiatu ahulenei elikadura ematea

4. Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	2025-2027
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	2025eko ekitaldia: 10.000,00 euro 2026ko ekitaldia: 11.000,00 euro 2027ko ekitaldia: 11.000,00 euro
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarritzko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Zuzenean emango diren dirulaguntzak dira
7. Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garatuko diren jarduketan proiektua eskatzea. ▪ Eskatu beharreko helburuak eta baldintzak zehaztea. ▪ Jarduketak ikuskatzea eta hitzartutakoa bete dela egiaztatzea. ▪ Justifikazioa eta gauzatzeari buruzko kontuak ematea. ▪ Itzulketaren espedientea, ez-betetzea egonez gero.
8. Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenarekin <input type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9. Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Fondoak • Zaporeak
10. Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input type="checkbox"/> bai <input checked="" type="checkbox"/> ez (ez dago oinarririk)
11. Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	ZUZENA: 231.490.000 Dirulaguntza Euskal Fondoarentzat: Kuota 2.000,00 euro Proiektua 8.000,00 euro 231.481.001 Dirulaguntza Zaporeak elkartearantzat - 1.000,00 euroko diru-hornidura Zaporeak elkartearantzat.

ARLOA: OGASUN, ONDARE, LANGILE ETA ZERBITZU ARLOA

DIRULAGUNTZA LERROA: EUDEL EUSKADIKO UDALERRIEN ELKARTEARENTZAKO EKARPEN INSTITUZIONALA

1.- Helburu estrategikoak	Eudel Euskadiko Udalerrien Elkartearekin finantza aldetik lankidetzan jardutea, elkarte horrek Aguraingo Udalaren interesak defenda eta ordezkaria ditzan bestelako erakundeen aurrean eta elkarteak udalerriei ematen dizkien zerbitzuez onura atera dezan (hala nola, aholkularitza, prestakuntza, ordezkariak instituzionala, gobernu organoetara bertaratzeko, etab.). ...
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Funtsean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean oinarritzen da, eta Aguraingo Udalarentzako da, azaldutako helburuetarako.
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Eudel Euskadiko Udalerrien Elkartearekin finantza aldetik lankidetzan jardutea, elkarte horrek Aguraingo Udalaren interesak defenda eta ordezkaria ditzan bestelako erakundeen aurrean eta elkarteak udalerriei ematen dizkien zerbitzuez onura atera dezan (hala nola, aholkularitza, prestakuntza, ordezkariak instituzionala, gobernu organoetara bertaratzeko, etab.).
4.- Denbora tartea/gauzatzeko beharrezko epea	2025-2027
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2025eko ekitaldia: 8.000 € ➤ 2026ko ekitaldia: 8.000 € ➤ 2027ko ekitaldia: 8.000 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarriko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Dirulaguntza izendunak direnez gero, ez dago oinarri arautzailearik. Ekarpena udalaren finantza eskuragarritasunen arabera egingo da; horretarako, alde aurretik organo eskudunaren erabakia beharko da.
7.- Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	Diruz lagundutako erakundeak ezinbestean aurkeztu beharko ditu emandako kopuruei eta egindako gastuei buruzko justifikazio memoria.
8.- Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input checked="" type="checkbox"/> Zuzena/izenduna, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena/izenduna, hitzarmenarekin <input type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9.- Onuradunak	EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea

10.- Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input type="checkbox"/> bai <input checked="" type="checkbox"/> ez (ez dago oinarririk)
11.- Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	9200.481.006 Eudel aurrekontu partida 8.000 €

ARLOA: INGURUMENA

DIRULAGUNTZA LERROA: INGURUMENAREN ALDEKO SENTSIBILIZAZIO POSITIBOKO EKINTZAK SUSTATZEKO LANKIDETZA

1.- Helburu estrategikoak	Ingurumenaren ezagutza handiagoa eta haren aldeko sentsibilizazio positiboa bultzatzeko ekintzak sustatzen laguntzea, garapen jasangarriari bultzada emanez.
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Ingurumena
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Ingurumenaren sentsibilizazio eta ezagutza handiagoa sustatzen duten jarduerak bultzatzen laguntzea, garapen jasangarriari bultzada emanez: sentsibilizazio kanpainak, garbiketak, Zuhaitz Eguna...
4.- Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	Urtean behin
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2025eko ekitaldia: 1.000 € ➤ 2026ko ekitaldia: 1.000 € ➤ 2027ko ekitaldia: 1.000 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarritzko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Zuzenean emango diren dirulaguntzak dira
7.- Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garatuko diren jarduketaren proiektua eskatzea. ▪ Eskatu beharrezko helburuak eta baldintzak zehaztea. ▪ Jarduketak ikuskatzea eta hitzartutakoa bete dela egiaztatzea. ▪ Justifikazioa eta gauzatzeari buruzko kontuak ematea. ▪ Itzulketaren espedientearen, ez-betetzea egonez gero.

8.- Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenik gabekoa <input checked="" type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenarekin <input type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9.- Onuradunak	Aguraingo Ama-Lur Natur Elkartea
10.- Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input type="checkbox"/> bai <input checked="" type="checkbox"/> ez (ez dago oinarririk)
11.- Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	ZUZENA: 1720.481.019 Aguraingo Ama-Lur Natur Elkartearikiko hitzarmena. 1.000 €

ARLOA: MERKATARITZA ETA LANKIDETZA

DIRULAGUNTZA LERROA: MERKATARITZA SUSTATZEKO EKINTZAK BULTZATZEKO LANKIDETZA

1.- Helburu estrategikoak	Udalerrian merkataritza eta sektorearen asoziazionismoa bultzatzen duten ekintzak sustatzen laguntzea.
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Merkataritza eta lankidetzak
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Toki merkataritza sustatzen duten jarduerak bultzatzen laguntzea, bai eta sensibilizazioa areagotzeko eta udalerrian merkataritza txikia bultzatzeko jarduera programa bat ere: sustapen kanpainak, jolas eta kultura jarduerak, saltokietan erabiltzeko Agurain bonua...
4.- Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	Urtean behin
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	2025eko ekitaldia: 7.600 € 10.400 € Agurain bonua, 2026ko ekitaldia: 7.900 €, 10.400 € Agurain bonua, 2027ko ekitaldia: 7.600 € 10.400 € Agurain bonua
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarritzko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Zuzenean emango diren dirulaguntzak dira

7.- Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garatuko diren jarduketan proiektua eskatzea. ▪ Eskatu beharreko helburuak eta baldintzak zehaztea. ▪ Jarduketak ikuskatzea eta hitzartutakoa bete dela egiaztatzea. ▪ Justifikazioa eta gauzatzeari buruzko kontuak ematea. ▪ Itzulketa espedienteak, ez-betetzea egonez gero.
8.- Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenik gabekoa <input checked="" type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenarekin <input type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9.- Onuradunak	Arabako Lautadako Merkataritza eta Ostalaritza Elkartea (Lautada bizirik-ACICSA)
10.- Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input type="checkbox"/> bai <input checked="" type="checkbox"/> ez (ez dago oinarririk)
11.- Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	ZUZUENA: 430.481.014 ACICSArekiko hitzarmena 7.600 € 430.480.000 ACICSA, Agurain bonua 10.400 €

ARLOA: HEZKUNTZA

DIRULAGUNTZA LERROA: UDALERRIKO IKASTETXE ARAUTUETAKO GURASO ELKARTEEKIKO LANKIDETZA, ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMAK GARATZEKO

1.- Helburu estrategikoak	Udalerriko ikastetxe arautuetako guraso elkarteek sustatutako eskolaz kanpoko ekimenei eta programei laguntzea.
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Kultura ekintza
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Aguraingo ikastetxe arautuetako guraso elkarteek antolatutako eskolaz kanpoko jardueren programa garatzeko laguntza ematea: Lautada ikastola, Lope de Larrea ikastola eta Aniturri institutua.

4.- Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	Urtean behin
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2025eko ekitaldia: 6.000 € ➤ 2026ko ekitaldia: 6.000 € ➤ 2027ko ekitaldia: 6.000 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarrizko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Deialdiaren xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak, merituak baloratzeko irizpideak, baztertuak izateko irizpideak, dirulaguntza jasotzeko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta konfidentzialtasun klausulak
7.- Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	Lortutako ekintza eta helburuen azalpen memoria eta kostuen memoria ekonomikoa. Honako adierazle hauek aztertuko dira bereziki: <ul style="list-style-type: none"> ●Eskaera kopurua ●Emakida kopurua ●Ukapenen kopurua ●Guztira emandako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.
8.- Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenarekin <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9.- Onuradunak	Aguraingo ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak, baldin eta deialdiaren oinarrien baldintzak betetzen badituzte.
10.- Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	X bai <input type="checkbox"/> ez Baietz markatuz gero, adierazi zein: <ul style="list-style-type: none"> ● Diskriminazioa eragiten duten proiektuak baztertea ● Aukera berdintasuna sustatzen duten proiektuak baloratzea
11.- Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	NORGEHIAGOKA BIDEZ: 326.481.015 Hezkuntza jarduera osagarriengatiko transferentzia. 6.000 €



IRULAGUNTZA LERROA: ELKARTEEN MUGIMENDUAREKIKO LANKIDETZA KULTURALA

1.- Helburu estrategikoak	Ekimen artistikoak sustatzeko eta berreskuratzeko programak babestea: abesbatzak, musika eta dantza.
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Kultura ekintza
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Abesbatzak, musika eta dantzaren kulturaren prestakuntza emateko, elkartrukeak izateko eta haren sustapen lana egiteko laguntza ematea.
4.- Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	Urtean behin
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2025eko ekitaldia: 30.000 € ➤ 2026ko ekitaldia: 30.000 € ➤ 2027ko ekitaldia: 30.000 €
6.- Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarritzko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Zuzenean emango diren dirulaguntzak dira
7.- Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garatuko diren jarduketaren proiektua eskatzea. ▪ Eskatu beharreko helburuak eta baldintzak zehaztea. ▪ Jarduketak ikuskatzea eta hitzartutakoa bete dela egiaztatzea. ▪ Justifikazioa eta gauzatzeari buruzko kontuak ematea. ▪ Itzulketa espedientea, ez-betetzea egonez gero.
8.- Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenik gabekoa <input checked="" type="checkbox"/> Zuzena/lzenduna, hitzarmenarekin <input type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9.- Onuradunak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ramón Sagasti Musika Elkartea. ✓ Aguraingo Jeiki Dantza Elkartea. ✓ Eguzkilore abesbatza.
10.- Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input type="checkbox"/> bai <input checked="" type="checkbox"/> ez (ez dago oinarririk)

11.- Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	ZUZENA: 334.481.007 Eguzkilore abesbatzarekiko hitzarmena 6.000 € 334.481.009 Ramón Sagasti musika elkartearekiko hitzarmena 16.500 € 334.481.008 Jeiki Dantza Taldearekiko hitzarmena 7.500 €
---	--

ARLOA: KULTURA EKINTZA

DIRULAGUNTZA LERROA: UDALERRIKO AZOKA ETA JAIEN JARDUNALDIEN TESTUINGURUAN GIZARTE ETA KULTURA JARDUERAK GARATZEKO LANKIDETZA

1.- Helburu estrategikoak	Jai batzordeak aurrera eramandako gizarte, kultura eta aisialdi ekimenak babestea Aguraingo azoka eta jaien jardunaldien testuinguruan.
2.- Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Kultura ekintza
3.- Helburu zehatzak eta aplikatzearen bidez lortu nahi dena	Aguraingo azoka eta jaien jardunaldietan aurrera eramaten den eta elkarteek, kuadrillek eta taldeek antolatzen duten jarduera programaren zati izango diren gizarte eta kultura jardueren garapena babestea.
4.- Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	Urtean behin
5.- Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa iturriak. Urte anitzeko programazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2025eko ekitaldia: 40.000 € ➤ 2026ko ekitaldia: 40.000 € ➤ 2027ko ekitaldia: 40.000€
